

12 ARRAZOI (badira gehiago ere) lan hitzarmenaren alde borrokatzeko:

1. Langile gehienok lanaldi partziala dugu; lanordu guztiak betetzen dituzten kontratuak salbuespena dira, eta horregatik soldata urria jasotzen dugu. Gainera, lanaldi partziala ordutegi eta leku desberdinetan egin behar dugu. Eta prest egotea edo mugikortasuna ez da ordaintzen.
2. Sarritan aplikatzen dizkiguten kategoriak ez datoz bat betetzen ditugun eginkizunekin.
3. Pagen prorratea baliatzen dute soldata kaskarrak makillatzeko; horregatik, paga jaso behar den unean ez dago kobratzeko ezer.
4. Gure kontratu gehienak lanaldi partzialekoak direnez, ezarritako ordutegitik gora egindako lana ohiko ordu gisa ordaintzen da, ordu osagarriak erabiliz. Horrela enpresei ia debalde ateratzen zaie.
5. Klaseak prestatzeko denbora ez da ordaintzen.
6. Taldea osatzen duten kideen kopurua askotan gomendatua baino handiagoa da, eta horrek eragotzi egiten du ikasleei eman nahi geniekeen arreta eskaintzeko aukera.
7. Ohikoa da jarduna atsedenaldirik gabe jarraitzea; ezin diegu erabiltzaileei zalantzak argitu edo iradokizunak egiteko tarterik eman.
8. Laneko ekipamendua sarri eskasegia da edota egin beharreko jardueretarako ez da egokia; ohikoa da, ondorioz, material hori gure poltsikotik ordaintzea.
9. Kirolaren legea ezarriko da eta gutako askok birziklatu beharra izango dugu; oraindik ez dago argi zer nolako prestakuntza emango den eta gastua nork hartuko duen bere gain.
10. Egungo lan hitzarmeneko hainbat artikulua ez dira aplikatzen, edo ez osorik, sektoreko enpresek interpretazio murriztailea egiten dutelako.
11. Sektoreko langile gehienok gure jarduera herri-erakundeen menpeko instalazioetan egiten dugu, eta hauek zaindu behar dute gure lan baldintzak duinak izan daitezen. Haatik, hori ez da inola ere gertatzen.
12. Sektoreko profesionalok badakigu instalazio eta zerbitzuen erabiltzaileek gure lana estimatzen dutela; aitzitik, ezin dugu gauza bera esan enpresa eta udalei buruz.

Bilbo
Barrainkua 13, 48009
94 403 77 00

Basauri
Antonio Fernández s/n 48970
94 405 58 88

Barakaldo
Gernikako Arbola 35-38 48902
94 418 02 96

www.ela.eus

Areeta
Areetako etorbidea 2 48930
94 602 04 50

Durango
Askatasun Etorbidea 5 48200
94 621 76 80